

## Gautxori

Kaixo lagun,

Zer moduz?

XVI. mendean bizi den tamaina txikiko saguzar bat naiz, koadrilakoek "Gautxori" deitzen naute eta nire eskarmentuaren berri emango dizut.

Ezkio herrian, Igartubeiti izena duen egurrezko dolare baserrian, jaio nintzen. Hautzaroan bizi nintzen baserri horretako teilatuan zegoen zulo ilun batean. Egunez lo egiten nuen eta gaez intsektuak harrapatzera irteten nintzen. Gizakiak urruntzen zirenean sagardo pixka bat dastatzen nuen.

Halako batean, kupel baten barruan nintzela, ezustean sartu zen etxeko morroi batek kupela hartu eta gurdi batera igo zuen. Bi idiek tira eta tira kupela eta biok eraman gintuzten bidaian. Tirriki-tarraka lo geratu nintzen eta esnatu orduko Donostian nengoen, itsasontzi batean.

Gogoan dut marinel adoretzu eta haien emazte langileen agurrak kaian. Negarrak, musuak, besarkadak, otoitzak eta zorabioak mosaiko aberats horren pieza batzuk besterik ez ziren. Haurrak eta aiton-amonak ez ziren faltako hitzordu esanguratsu hartan.

Besteak beste, antxoa, sardina, legatza eta bakailaoak arrantzatzen zituzten itsasgizon trebe haiek. Luze eta neketsuak ziren orduak eta egunak itsas zabalean. Liskarrak ez ziren falta, amets gaiztoak ere ez. Gogorrena zen, ordea, olaturen batek marinel bat irensten zuenean. Orduan aiene eta intziriak bihotz eta hezurretaraino sartzen ziren eta kresalarekin bat arnasten ziren.

Kontakizunak, berriz, arintzen zuten bidaia. Baita kantuak ere. Ezin ahaztu dut Itziartik igarotakoan marinelek txapela kenduta kantatzen zuten abesti hunkigarria:

Agur, Jainkoaren ama maite ederra,  
zeruko atea, itsasoko izarra.

Itsuak argitu, lotuak askatu,  
ongiak eman (e)ta gaizkiak hondatu.

Saguzarra